




hemen
eta
online

Bigarren eskuko batera ederra

(<https://www8.smartadserver.com/click?>

imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024031&ckid=3381941171345454459&uili=260185582908484022&acd=1567145200440&pubid=20&tmstp=8641699084&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&sysgt=%donostia-abor datuko-dute-gaur%2f&go=http%3a%2fwww.iragarkilaburrak.eus)



Piratek Donostia abor datuko dute gaur



Donostia

Jaiak (<https://irutxulo.hitza.eus/galak/jaiak/>)

203 baltsa eta 1500 lagun baino gehiago izango dira gaurko Abordatze piratan. 17:00etan kaitik botako duten txupinazoarekin emango diote hasiera Aste Nagusi Piratako ekitaldi ezagunenari.

2019 (<https://irutxulo.hitza.eus/2019/08>) (<https://irutxulo.hitza.eus/2019/08/12>) (<https://irutxulo.hitza.eus/2019/08/12>)

Irutxuloko Hitza (<https://irutxulo.hitza.eus/sinadurak/irutxuloko-hitza/>)

Goizean goizetik kaian lanean ari dira Donostiako Piratak, arratsaldean hiria abor datzeko erabiliko dituzten baltsen eraikuntzan. Goiz osoan zehar banaturiko hiru txandatan antolatu dute muntaketa, eta 14:00 arte kaiko arrapalan izango dira baltsai azken ukituak ematen.

Lanak amaituta, elkarrekin bazkalduko dute Kaimingaitxo gunean, eta brindisa ere egingo dute. Bazkalostean, berriz, kaira bueltatuko dira kalejiran, 17:00etan Ezkilak eta Mattik botako dute txupinazora heltzeko.

Urtero bezala, suhiltzaileekin batera diseinatutako segurtasun plana osatu dute, eta DYaren, Gurutze Gorriaren eta Babes Zibilaren laguntza izango dute parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko. Kaian, zaingorako hainbat postu izango dituzte, eta ur azpian, urpekariak istripuak saihesteko prest egongo dira.

Abor datzea 2003an sortu zuten piratek, eta gaur hamaseigarren aldiz sartuko dira uretara, hasierako ilusio berez eta berritasun nabarmen batekin: aurten, baltsa politenak saria izango du. Piratek ez zaie arrazoirik falta, hortaz, goizak iraun bitartean ajeari aurre egin eta lanean buru-belarri aritzeko.



Donostiako Piratak

@izanpirata

Donostia abor datzeko eguna iritsi da eta piratek euren baltsak muntatzen hasi dira jada kaiko arrapalan!

Guztira 203 baltsa eta 1.500 lagun baino gehiago izango dira gaurko Abor datzean [#ANPirata19](#) [#IzanPirata](#) [#AbordatzePirata](#)

Tokiko informazio profesionaltasunez eta euskaratik, modu librean kontatzea da gure eginkizuna. Horretarako zure ekarpena beharrezkoa da, eta ongi maitatzeko modurik zintzoena da HITZAKIDE egitea.

egin zaitzez HITZAKIDE (<https://irutxulo.hitza.eus/hitzakide/izan/>)